

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OYÓN-OIONGO UDALA

Hiri hondakin solidoak biltzearen 2020ko laugarren hiruhileko tasa ordaintzeko epea jakinarazteko eta tasa bera kobratzeko iragarkia

Ordaintzeko epeak:

A) Borondatezko epea: 2021ko urtarrilaren 8tik martxoaren 8ra bitarteko egun baliodunetan (egun bi horiek barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, Hiri hondakin solidoak biltzearen 2020ko laugarren hiruhileko tasaren ordainagiriak.

B) Betearazte aldia: 2020ko martxoaren 10etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Ordaintzeko lekua eta modua:

Banketxeetan helbideratutako ordainketak: Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez duten pertsonak udal bulegoetan eska dezakete ordainketa banku kontuan helbideratzea, diru sarrera egin dezakete Kutxabankfinantza erakundearen udalak duen bilketarako kontuan, edo Udalaren diruzaintzan egin dezakete ordainketa.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan eta Zergabilketarako Arautegi Orokorra onartzen duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertzeorrekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Bo201228Ek.

Oyón-Oion, 2020ko abenduaren 28a

Alkatea

EDUARDO TERROBA CABEZÓN